

## Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

## Tulipanen burbuila



Ezkerrean, Herbehereetako egungo tulipan soroa. Lerro hauen gainean, Amsterdam XVII. mende erdialdean, lehen porrot finantzarioaren garaian.

**HOLANDA, 1636 ETA 1637.** Historiako lehen burbuila espekulatibotzat jotzen dena gertatu zen. Holanda aitzindaria zen finantza kontuetan; urte batzuk lehenago, 1602an, Amsterdameko burtsa sortu zen Ekialdeko Indietako Konpainia Holandarraren eskutik. Berez, munduko lehen burtsa Anbereskoa (Belgika) dela esaten da –1460an sortua–, baina Amsterdamekoa izan zen aktibo finantzarioekin negoziatzen lehena. Eta herrialde horretan izan zen, halaber, historiako lehen porrot finantzarioa.

Baina porrotaren jatorrian ez zegoen ez higiezinik, ez lehengairik, ez antzekorik, tulipanak baizik. Tradizioak dio Otomandar Inperiotik ekartzen ziren landareen prezioa izugarri handitu zela, Holandako nobleziak eta burgesiak eskaera puztu zutelako. Produktu desiratua zen, baina artean ez zen Holandan bertan eskaera asetzeko kopuruan lantzen; eskaerak gora egitean, inportazioek ere gora egin zuten eta, nola ez, prezioek. Gero, bat-bateko jaitsiera etorri zen, eta horrek herrialde osoko ekonomia kolapsatu omen zuen.

Anne Goldgar historialariak *Tulipomania* izenburuko lanerako egindako azterketak krisia benetan askoz apala-

goa izan zela dio. Tulipanek, inbertitzaile batzuek etekin bila zabalduetako bide berria azken batean, uste baino garrantzi txikiagoa zuten holandar ekonomian; jaitsierak ez zuen porrot orokorra ekarri.

Hala ere, Goldgar-en ustez, tulipanen aferak konfiantza krisi garrantzitsua sortu zuen holandar kapitalismoan. Tulipanekin egindako operazio asko egun *etorkizunerako kontratu* moduan ezagutzen ditugunak ziren, hau da, inbertitzaileek produktu jakina erosteko konpromisoa hartzen zuten, produktu hori eskuragarri izatean. Tulipanen prezio igoera ikaragarriaren ondorioz, ordea, gehienek konpromisoa haustea erabaki zuten.

Harreman ekonomikoak goitik behera aldatu ziren orduan. Parteen arteko konfiantza hutsean oinarritutako konpromisoak ez zuen jada baliorik. Hortaz, konpromiso objektiboak bilatzen hasi ziren.

Higiezinaren burbuila eta horren ondorioz ustez gainera datorkigun krisialdia denon ahotan dabiltzan garai hauetan, hainbatek iraganera jotzen du analogia bila. Gutxi egiten du atzera, dena den, 1929ko *crack* ezagunetik harago. Eta XVII. mendeko tulipanetan ere badago finantza-lezio eredugarriak. ■

## ARRASTOAK

**HITLER ETA FRANCO** Hendaian bildu zirela 70 urte beteko dira hemendik bi urtera. Baina adituak ez dira aitzakia horren zain egon bien arteko harremana aztertu eta emaitzak argitaratzeko. Horrenbestez, bi liburu argitaratu berri dira gaiaren inguruan, biak ikuspuntu ezberdinetatik idatziak.

Batetik, Stanley G. Payne hispanista eta faxismoan adituak *Franco y Hitler. España, Alemania, el Holocausto y la Segunda Guerra Mundial* lana kaleratu du, gehienbat gai transbertsalak landuz; hala nola, juduen genozidioaren aurrean Francok zer jarrera izan zuen.

Bestetik, *Hitler y Franco. Diplomacia en tiempos de guerra (1936-1945)* du izenburua Xavier Moreno historialariaren lanak. Bertan, bien arteko harremana egunez egun berreraiki du, bibliografian eta artxibategietan oinarrituta, eta solasaldiak nahiz eskutitzak bilduz.



Adolf Hitler eta Francisco Franco Hendaian, 1940ko urriaren 23an. Bien arteko harremana aztertzen duten bi liburu argitaratu berri dituzte.